

AFRIKARRAK EUROPAN



Bazen behin Sumala izeneko mutiko afrikar bat. Oso triste bizi zen, basamortuan: han ez dago urik, jostailurik, jantzi aproposik eta ondo bizitzeko etxe onik ere ez, telazko kanpinetan bizi ziren eta.

Egun batean, Sumalak txanpon txiki bat aurkitu zuen. Denak pozi-ozik zenbiltzan, baina Sumalaren aita (Sali) oso pentsakor zebilen:

- Nola heldu ote da txanpona, Afrikako basamortu handienera?

Sali pentsakor zebilen momentuan, agintariak esan zuen:

- Beno txanpona herriaren altxorra izando da!

Orduan, etorri zen Sali korrika batean, galdezka:

- Inork ba al daki nondik atera den txanpona?
- Ez – erantzun zuten herritarrek.
- Beno ba nik uste dut europarrak bidali diguten baliogabeko txanpona dela – esan zuen Salik.
- Nik badakit zer egin, txanponarekin, hegazkina erosiko dugu eta Europara joango gara.

Orduan agintaria hegazkina eroatera joan zen.

Hurrengo egunean han agertu zen agintaria hegazkinarekin eta denak Europarantz abiatu ziren.

Handik 3 edo 4 egunera, Europara iritsi eta denak mutu geratu ziren. Europan, ura ezer egin gabe edan zenezaken, jostailuak soberan eta erropa ezer baino gehiago. Izugarria zen, afrikarrak izugarri poztu ziren, baina europarrek ez zien utzi han bizitzen.

Halere, afrikarrak europarrak baino askoz argiagoak ziren.

Afrikarrek ikusi zuten hiri horietan laster ezin izango zela bizi, dena argiz, keez eta kutsaduraz beteta zegoen eta. Europarrak lasai zebiltzan, baina handik 100 urtetara ezer gabe geratu ziren.

Han ezin zen bizi eta Afrikarantz abiatu ziren. Afrika heldu ondoren ikusi zuten nola bizi ziren eurak eta pixka bat, edo hobeto esanda, 20 egun geroago ikasi zuten zer zen kutsadura eta elkarren artean laguntasuna edukitzea.

Orduan konturatu ziren gabonetan asko baino gehiago kutsatzen zutela: argia, zaborra, kea eta baita gas toxiko ugari ere bai, baina ez gabonetan bakarrik, egun normaletan ere asko kutsatzen zutela.

Afrikarrek zorionak eman zizkieten, baina berandu zen. Orduan, hiritar batek pentsatu zuen argi indarra lortzeko haize errotak jartzea, baina leku gutxitan. Horrela ez zen paisaia zatartuko eta argi indar gutxiago gastatuko genukeela. Beste batek pentsatu zuen ura denok eta neurrian izateko urtegi handi bat egitea eta handik bi ibai, bat Afrikara joateko eta bestea Europara.

Beste aldetik, afrikarrek pentsatu zuten arropa eta jostailuak behar dituztenak edukitzea, ez hainbeste.

DENAK BEREN HERRIALDEETAN ASKO KUTSATU GABE OSO POZIK BIZI IZAN ZIREN!!!!

